

# Asisko gutuna

2014ko Abuztua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

70. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bigarren printzipio honetan Jainko begiradaz begira nahi diogu geure buruari. Epaitu ez baizik bedeinkatzen gaituen begirada, onartzen gaituena, maitagarria, biziarazi eta aurrera bultzatzen gaituen begirada. Begirada hori da apaltasunez bizitzera garamatzana, ez garenik erakutsi beharrik gabe, garenan maitatuak garelako, geure biluztasunean. Horrelako begiradaren aurrean... nolatan ez dugu bada guztia emango! Gehienetan, santuek egin duten guztia maitatuak direla onartu eta horren arabera jokatzera baino ez da.

## Gogoetarako gaia

### *Nire dohainak besteentzat dira.*

Sarritan apaltasuna pertsonaren baitara bildua egon da gehienbat, norberaren arazo izatera etorria, ingurunearekin zerikusirik gabea. Baina apaltasuna ez da, inola ere, isolamendu. Gertatzez pertsonak, egian biziz libreagoa dela eta bizi duen guztia azpi azpian erregali duela, sumatu duenean, besteentzako dohain bihurtzen du bere bizitza osoa.

Apaltasuna ez da bizitzen moraleko helmuga bat edo lortu behar den bertute bat bezala, edo besteengana nahiz norberarengana aurkezteko arau bati loturiko estilo bat bezala; eta ez da norberari berez sortzen zaion urguiluaren errepresioa. Egian, eta bizitzak eta besteek eskaintzen dioten guztiagatik esker onez, bizi nahi duen pertsona bultzatua sentitzen da eskuzabaltasunez besteei emana bizitzera.

Nagusia den kultur ereduan ez bezala (bertan

pertsonaren eredu individualista izan da eta norberaren interesa da guztiaren zentro eta eragile), gizon edo emakume apalak ez dira bizi besteentzat boluntarismo hutsez, kanpotik datorrien agindu moral nahiz etikoren batengatik solidario izateko irrikagatik. Berau, funtsean, urguilu disimulatu modu bat izango litzateke soilik. Apaltasunaren bideetan aurrera doan pertsonak, “emana izatekoa” ikusten du bere burua, bere bizitza besteenen alde gastatzeko. Bestela, zertarako daiteke bizitza? Pertsona apalak ikusten du, dena besteei emateko hartua duela eta hor doala bere bizitza betetzen.

Sinestedun den kontzientziak mailarik handiean garatzen du hau guztia, Bestearengandik hartua duen, eta besteekiko eskuzabaltasunean Harengana itzuliko den, bizitza baten hartzaile sentitzen baita.

## Itun Berriko pasarteak: 1P 4,7-11

Hurbil da gauza guztien azkena. Beraz, izan zaitezte zentzudun eta bizi neurritasunez otoitzari loitzeko. Batez ere, gorde ezazue bizi-bizi elkarrenganako maitasuna, maitasunak bekatu askoren barkamena lortzen baitu. Egiozue abegi ona batak besteari, marmarrik gabe. Nork bere dohaina hartu du Jainkoarengandik. Jar itzazue guztiok zeuen dohainak besteen zerbitzura, Jainkoaren hainbat eratako dohainen administratzaile zintzo bezala. Hitz egiteko dohaina duenak adieraz dezala Jainkoaren hitza. Zerbitzuren bat duenak bete dezala Jainkoak ematen dion indarrak, gauza guztien Jainkoa goratua izan dadin Jesu Kristoren bidez. Beroni aintza eta ahalmena menderen mendetan! Amen.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Beste behin, Sienatik bueltan zetorrela, behartsu bat aurkitu zuen bidean, eta santuak esan zion lagunari: “Beharrezkoa da, anaia, mantua behartsu honi itzultzea, berea baita. Izan ere guk maileguz hartu dugu, gu baino behartsuagoren aurkitu arte”. Baina laguna, aita onberaren premia ikusiz, ezezkoan zegoen tinko, ezin ziela besteei lagundu eta bere buruaz ahaztu. Santuak, ordea: “Ez dut lapur izan nahi; lapurtzat hartuak izango ginateke, guk baino behar handiagoa duenari emango ez bagenio”. Amore eman zuen lagunak eta santuak mantua behartsuari (2 Zel 87).

Frantziskoren bihotz fededun eta anaikorraren arabera, ondasun guztiak, edozein motatakoak, mailegutik hartuak ditugu. Beroriek ordainetan ematera, ekoizpenean jartzera, partekatzea deituak gaude. Ez dira guretzat emanak, besteentzat baizik. Gu geu dohain bihurtzeko ahalmen ederra daukagu, eman zaizkigun dohainak partekatuz. Dena hartua duela konturaturik bizi den pertsona, erraz ikusten dute besteek erregali eta bedeinkazio handi gisa. Frantziskok hori ikusten du Jesu Kristorengan: egunero guregana oso osorik jaisten eta gure alde eskaintzen den Jainkoaren apaltasuna.

## Otoitza

Jauna, ez daukazu eskurik,  
soilik gure eskuak dauzkazu,  
bakea eta justiziaren lorea eman dezan  
mundu berri bat eraikitzeko.

Jauna, ez daukazu oinik,  
soilik gure oinak dauzkazu,  
zapalduak askatasunaren bidetik  
martxan jartzeko.

Jauna, ez daukazu ezpainik,  
soilik gure ezpainak dauzkazu,  
behartsuei solidaritatearen  
berri ona aldarrikatzeko.

Jauna, ez daukazu aurpegirik,  
soilik gure aurpegia daukazu,  
triste daudenak pozteko, eta porrotean  
lur joak kontsolatzeko.

Jauna, ez daukazu mediorik,  
soilik gure ekimena eta ekintza dauzkazu,  
pertsona guztiek  
senide gisa bizitzea lor dezaten.

Jauna, gu gara zure Ebanjelioa,  
gure senideek irakurri ahal duten  
Ebanjelio bakarra,  
baldin eta gure bizitzak hitz eta  
egite solidarioak baditu  
ahaztuta eta premian direnentzat.

Jauna, hemen dituzu nire eskuak, nire oinak,  
nire ezpainak, nire lana, nire denbora, nire  
ilusioa, nire bizitza ...,  
naizen eta daukadan guztia.  
Hemen nauzu, Jauna. Har nazazu lankide.

(Florentino Ulibarri)

## Gutuneko azken hitzak

“Eskerrak, Jauna, sortu nauzulako”. (Asisko Santa Klara)

### 2014ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate abuztuko erreferentzia guztiak:

1 Mt 13, 54-58	8 Mt 16, 24-28	15 Lc 1,39-56	22 Mt 22,34-40	29 Mt 25, 1-13
2 Mt 14, 1-12	9 Mt 10, 28-33	16 Mt 19, 13-15	23 Mt 23,1-12	30 Mt 25, 14-30
3 Mt 14, 13-21	10 Mt 14, 22-33	17 Mt 15,21-28	24 Mt 16,13-20	31 Mt 16, 21-27
4 Mt 14,22-36	11 Mt 17,22-27	18 Mt 19,16-22	25 Mt 23,13-22	
5 Mt 15,1-2.10-14	12 Mt 18,1-5.10.12-14	19 Mt 19, 23-30	26 Mt 23,23-26	
6 Mt 17,1-5	13 Mt 18, 15-20	20 Mt 20,1-16	27 Mt 23,27-32	
7 Mt 16,13-23	14 Mt 18, 21-19,1	21 Mt 22,1-14	28 Mt 24,42-51	



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitzaldia 28an izango da.